# DONEJAKUE BIDEA BIZIKLETAZ
## EL CAMINO DE SANTIAGO EN BICICLETA




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Euskadin, Done Jakue Bidea oinez egiteko seinalizatuta dago, UNESCOk Munduko Ondare izendatutako ibilbide batetik. Gida honetan, zakuto eta guzti mendi-bizikletaz egiteko zailenak izan daitezkeen zatiak saihesteko hainbat aukera proposatuko dizkizugu. Kontuan izan zenbateko sasoi-puntua duzun zein bide egingo duzun erabakitzeko garaian.

*El Camino de Santiago por Euskadi está señalizado para su realización a pie por un trazado que ha sido nombrado Patrimonio Mundial por la UNESCO. En esta guía te proponemos diversas opciones para evitar los tramos del camino que pueden resultar más complicados para una bicicleta de montaña con alforjas. Valora tu forma física a la hora de decidir el camino que vas a realizar.*

Done Jakue bidea ez dago bizikletaz egiteko seinalizatuta. Lor ezazu GPS bat edo zure smartphonean ibilbidea markatuko dizun app bat.

*El Camino de Santiago para bicicletas no está señalizado como tal. Hazte con un GPS o una app. con el trazado a realizar en tu smartphone.*

Ez ahaztu kaskoa, arropa islatzailea, giltzarrapo on bat, eguzkitarako betaurrekoak, eguzkitarako babesa eta bizikletan oinarrizko konponketak egiteko beharrezkoa den materiala.

*No olvides llevar casco, ropa reflectante, un buen candado, gafas de sol, protección solar y material necesario para realizar las reparaciones básicas.*

Kontu handiz ibili errepideko zatietan. Bidea itsas bazterreko guneetatik igarotzen da eta, udan, trafiko oso handia izaten da.

*Extrema la precaución en los tramos de carretera. El camino discurre por zonas cercanas al mar donde el tráfico en verano es intenso.*

Oinezko erromesengana hurbiltzen zarenean, mantsotu abiadura haien ondotik igarotzean.

*Cuando te acerques a peregrinos a pie, reduce la velocidad al pasar a su lado.*

Kontuan izan zenbait aterpetxetan oinezko erromesek lehentasuna izan dezaketela.

*Ten en cuenta que en algunos albergues los peregrinos a pie pueden tener preferencia.*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

Markina-Xemeindik indarberrituta aterako gara Donejakue Bideak Euskadin duen bereizgarri garrantzitsuenetako baten bila: Ziortzako kolejiata. Baserri-giroko herri txikiak igaroko ditugu, hala nola Bolibar, Munitibar edo Arratzu, euskaldunon askatasunen habira, Gernika-Lumora iristeko bidean. Hortik aurrera, bi igoaldi gogor izango ditugu Bidean, Gerekizeko eta Aretxabalganeko gainetan, Larrabetzura iritsi baino lehen, eta El Viveroko igoera gogorra Bilbora heldu baino lehen, garai batean fabrikaz jositako baina egun erabat eraberritutako Bizkaiko hiriburura.

*Salimos de Markina-Xemein con energías renovadas buscando uno de los hitos del Camino de Santiago en Euskadi: la colegiata de Ziortza. Pasaremos por pequeños pueblos de marcado carácter rural como Bolibar, Munitibar o Arratzu en nuestro discurrir hacia Gernika-Lumo, cuna de las libertades vascas. De aquí en adelante el Camino nos depara un par de fuertes ascensiones, a los altos de Gerekiz y Aretxabalgane, antes de Larrabetzu y la fuerte subida a El Vivero antes de alcanzar la otrora fabril Bilbao, renovada capital de Bizkaia.*

KMZ

GPX



### Markina-Xemein > Bilbao

| | |
|---|---|
| Distantzia: / *Distancia:* | 59,6 km |
| Desnibela: / *Desnivel:* | 1216 m |
| Denbora, gutxi gor.: / *Tiempo aprox.:* | 6h |
| Zailtasuna: / *Dificultad:* | Handia / *Alta* |

| | |
|---|---|
| Zolatutako bide-zorua: / *Firme pavimentado:* | 92 % |
| Zolatu gabeko bide-zorua: / *Firme no pavimentado:* | 8 % |
| Aldapa handieneko tarteak: / *Tramos de mayor pendiente:* | Bolibar-Ziortza-Gorontzugarai, Muxika-Gerekiz, Lezama-Vivero |




Zolatutako bide-zorua / *Firme pavimentado*
Zolatu gabeko bide-zorua / *Firme no pavimentado*

# Bidezatia / *Tramo*
## MARKINA-XEMEIN > GERNIKA-LUMO

km

**0** **MARKINA-XEMEIN.** BI-633errepidetik irtengo gara Bilbo aldera eta Iruzubieta auzora iritsiko gara; Iruzubietan Bide ofiziala topatuko dugu une batez, eta guk eskuinaldera hartuko dugu Ziortza-Bolibar aldera, BI-2224 errepidetik herri txiki horretara iritsi arte.

**7,2** **ZIORTZAKO KOLEJIATA.** Ziortzako (edo Zenarruzako) kolejiatara doan harrizko galtzadatik joan behar ez izateko, BI-4401 errepidea hartuko dugu UNESCOk Munduko Ondare izendatutako tenplu eder horretaraino, Iparraldeko Bidearen ondotik. Aurrerantzean basoko pistetan barrena ibiliko gara, Bide ofizialari jarraikiz. Egurrezko pasabide bat topatuko dugu erreka txiki bat zeharkatzeko; bizikletatik jaitsi eta oinez igaro beharko dugu.

**8,6** **GORONTZUGARAIKO GAINA.** Gora iritsi garelarik, errepidearen ondoan eskuinetara jo behar dugu eta oinezkoen Bidea alde batera utzi, BI-3224 errepidetik sartu eta Munitibarrera iritsiko gara; hortik joanez gero, ez dugu egurrezko eskailerarik igo behar izango.

**11,4** **MUNITIBAR-ARBATZEGI-GERRIKAITZ.** Munitibarren, ibilbide ofizialarekin bat egingo dugu berriro ere eta herritik aterako gara Aldaka auzorantz, auzobide batean gora.

**13,5** **ASTORKIGANAKO GAINA.** Berriro ere BI-3224 errepidearen parera iristen garenean Astorkiganako gainean egongo gara. Errepidetik abiatuko gara oinezkoen Bidea alde batera utzita, eta Elexalde-Arratzuraino iritsiko gara; Santo Tomas ermita aurkituko dugu bertan eta, berriro ere, seinale ofizialak.

**19** **ELEXALDE- ARRATZU.** Elizaren ondoko iturrian freskatu ondoren, bidegurutze batera iritsiko gara; oinezkoen Bidea alde batera utziko dugu, ezkerretara egiten baitu Marmiz eta Ajangiz alderantz, eta guk aurrera jarraituko dugu, Loiola auzora. Udaletxea eta herriko taberna biltzen dituen eraikinera iristen garenean, eraikin horren eta kristalezko eraikin moderno baten artetik abiatzen den auzobide bat hartu eta Belendiz auzora joan behar dugu, eta handik, bidegorrian barrena, Gernika-Lumoraino.

**25,4** **GERNIKA-LUMO**

km

**0** ***MARKINA-XEMEIN.*** *Salimos por la carretera BI-633 dirección Bilbao hasta el barrio de Iruzubieta donde nos cruzamos momentáneamente con el Camino oficial y giramos a la derecha en dirección a Ziortza-Bolibar para seguir por la carretera BI-2224 hasta esta pequeña población.*

**7,2** ***COLEGIATA DE ZIORTZA.*** *Para evitar discurrir por la calzada empedrada de acceso a la colegiata de Ziortza (O Zenarruza) tomamos la BI-4401 que asciende hasta este hermoso templo nombrado Patrimonio Mundial por la UNESCO junto con el Camino del Norte. En adelante nos internamos por diversas pistas forestales siguiendo el Camino oficial. Encontraremos un pasarela de madera para cruzar un pequeño arroyo que nos obligará a bajarnos de la bici.*

**8,6** ***ALTO DE GORONTZUGARAI.*** *Al llegar al alto, junto a la carretera debemos girar a la derecha y dejar a un lado el Camino a pie, para tomar la carretera BI-3224 hasta Munitibar y evitar así una escalinata de madera que nos podría complicar la jornada.*

**11,4** ***MUNITIBAR-ARBATZEGI-GERRIKAITZ.*** *En Munitibar volvemos a unirnos con el trazado oficial para salir del pueblo en dirección al barrio de Aldaka ascendiendo por una carretera vecinal.*

**13,5** ***ALTO DE ASTORKIGANA.*** *Cuando llegamos de nuevo a la par de la carretera BI-3224, nos encontramos en el alto de Astorkigana. Tomamos la carretera dejando a un lado el Camino a pie para seguir por ella hasta Elexalde-Arratzu donde encontramos la ermita de Santo Tomás y de nuevo, la señalización oficial.*

**19** ***ELEXALDE- ARRATZU.*** *Tras refrescarnos en la fuente junto a la iglesia, alcanzaremos un cruce en el que obviamos el Camino a pie, que torna a la izquierda en dirección a Marmiz y Ajangiz, y continuamos de frente hacia el barrio de Loiola. Al alcanzar el ayuntamiento y la taberna del pueblo que curiosamente están en la misma casa, debemos tomar el camino vecinal que sale entre ésta y un moderno edificio de cristal para continuar hacia el barrio de Belendiz, y desde aquí, por carril bici hasta Gernika-Lumo.*

**25,4** ***GERNIKA-LUMO***

DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA

# DONEJAKUE BIDEA BIZIKLETAZ
## CAMINO DE SANTIAGO EN BICICLETA

Kostaldeko Bidea — 3 — El Camino de la Costa

## MARKINA-XEMEIN BILBAO






# EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Egin ezazu atsedenaldia Ziortzako monasterioan; UNESCOren Munduko Ondarearen Zerrendan sartuta dago eta Kostaldeko Donejakue Bideko bereizgarri garrantzitsuenetako bat da. Bakea eta lasaitasuna dira nagusi paraje horretan, eta paisaiaren eta arkitekturaren aldetik oso erakargarria da.

*Tómate un respiro en el Monasterio de Ziortza, incluido en la Lista de Patrimonio Mundial de la UNESCO, uno de los hitos del Camino de Santiago de la Costa. La paz y la tranquilidad reinan en este lugar de gran atractivo paisajístico y arquitectónico.*





Gernika-Lumon geldialditxo bat egitea ere merezi du, Juntetxea eta Gernikako arbola –euskaldunon sinbolo unibertsala– ikusteko. Turismo-bulegoan aukera gehiago ere proposatuko dizkizute. Zoaz ezagutzera!

*Merece la pena hacer una pequeña parada en Gernika-Lumo y acercarte a la Casa de Juntas, a contemplar el mítico "Árbol de Gernika", símbolo universal de los vascos. En la oficina de turismo te propondrán muchas más opciones. ¡No dejes de visitarla!*

www.euskaditurismo.eus

Aretxabalganeko gainetik Goikoelexaldera doan jaitsieran, gu gabiltzan errepidetik metro gutxira Zarandoako San Salvador ermita dago. Bizkaiko ermita zaharrenetako bat izan daiteke, gutxienez XI. mendekoa dela diote eta.

*En la bajada a Goikoelexalde desde el alto de Aretxabalgane, a unos metros de la carretera por la que circulamos se encuentra la ermita de San Salvador de Zarandoa. Se trata de la que podría ser una de las ermitas más antiguas de Bizkaia, cuyo origen se remonta al menos al siglo XI.*





Bilboko sarreran bertan, Mallonako galtzadetan, Donejakue Bidearen Adiskideen Elkartearen egoitza dago. Bertan, egiaztagiria edo kredentziala zigilatu eta bideari buruzko informazio zehatza lortu ahal izango duzu. Eta, horren ondoan, erromesei zerbitzu bereziak eskaintzen dizkien Bilboko Arkeologi Museoa dago.

*En la misma entrada a Bilbao, en las calzadas de Mallona, se encuentra la sede de la Asociación de Amigos del Camino de Santiago, donde podrás sellar la credencial y conseguir información pormenorizada sobre el camino. Y junto a ella, el Arkeologi Museoa de Bilbao, con servicios especiales para los peregrinos.*

# Bidezatia / *Tramo*
## GERNIKA-LUMO > BILBAO

km

**25,4** **GERNIKA-LUMO.** Gernika-Lumotik ateratzeko BI-635l errepideari jarraituko diogu eta, hartara, ez dugu Billikario mendia igo beharrik izango (Bide ofiziala handik da). Kilometro pare bat egindakoan Kurtzeroko bidegurutzera iritsiko gara Muxikan, eta eskuinetara hartu behar dugu, Morga eta Mungia aldera, BI-2121 errepidetik.

**33,7** **GEREKIZKO GAINA.** Gainean, seinale ofizialak bilatu beharko ditugu berriro eta ermita batetik abiatuko gara; ermita horrek estela erromatar bitxiak ditu fatxadan. Hasieran auzobideetatik ibiliko gara eta, gero, zagorrezko pistetatik.

**38,9** **ARETXABALGANAKO GAINA.** Aretxabalganatik gertu, Bide ofiziala lurrezko bidexka batetik ezkerretarantz joaten dela ikusiko dugu, baina guk ez dugu hortik joan behar; pistatik jarraitu behar dugu BI-2713 errepidera iritsi arte, gain horretan. Handik jaitsiera luze bat izango dugu errepidez Goikoelexalde auzoraino eta, handik gutxira, erne egon beharko dugu, Larrabetzura doan bidea hartzeko eskuinetara desbideratu behar dugulako.

**47,8** **LEZAMA.** Bidea oinez eta bizikletaz egiten ari diren erromesak elkarrekin sartzen dira Lezaman, BI-3713 errepidetik. Herriaren amaieran aurkituko dugun biribilgunean hirugarren irteera hartu behar dugu GANGUREN alderantz, eta Bide ofizialetik aldenduko gara berriro ere, Zamudiora zuzen baitoa. Guk hartuko dugun auzobideak gorantz egiten du, Elorritxueta/Vivero atsedenlekuraino, eta hor BI- 3732 errepidea topatuko dugu. Errepide horretan hiru kilometro inguru egin ostean, pisten bidegurutze batera iritsiko gara, Kurubiolandara; errepidea utzi eta hormigoizko pista bati jarraituko diogu Iturritxualde/Monte Avril menditik barrena Bilbora iritsi arte.

**59,6** **BILBAO**

km

**25,4** ***GERNIKA-LUMO.*** *Salimos de Gernika-Lumo junto a la carretera BI-635, evitando así la ascensión al monte Billikario por donde discurre el Camino oficial. Tras un par de kilómetros alcanzamos el cruce de Kurtzero en Muxika y giramos a la derecha en dirección Morga y Mungia por la BI-2121.*

**33,7** ***ALTO DE GEREKIZ.*** *En el alto debemos buscar de nuevo la señalización oficial que partiendo de una ermita con unas curiosas estelas romanas en su fachada discurrirá primero por caminos vecinales y después por pistas de todo uno.*

**38,9** ***ALTO DE ARETXABALGANA.*** *Cerca de Aretxabalgana, veremos que el Camino oficial se adentra por una senda de tierra a la izquierda que obviamos para continuar por pista hasta alcanzar la BI-2713 en el citado alto. Desde aquí nos espera una prolongada bajada por carretera hasta el barrio de Goikoelexalde y al poco, debemos estar atentos al desvío a la derecha para entrar en Larrabetzu.*

**47,8** ***LEZAMA.*** *Peregrinos a pie y en bicicleta alcanzan juntos Lezama siguiendo la carretera BI-3713. En la rotonda que encontraremos a la salida del pueblo, debemos tomar la tercera salida en dirección GANGUREN separándonos de nuevo del Camino oficial, que continua recto hacia Zamudio. La carretera vecinal que tomamos irá ganando altura hasta el área recreativa de Elorritxueta/Vivero donde enlazaremos con la BI- 3732. Tras discurrir por esta carretera unos tres kilómetros, al llegar a un cruce de pistas conocido como Kurubiolanda, dejaremos la carretera para tomar una pista hormigonada que nos conducirá por Iturritxualde/Monte Avril hasta Bilbao.*

**59,6** ***BILBAO***



# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- Arreta handiz ibili Aldaka auzora doan igoeran, ibilgailuak ere ibil baitaitezke bide horretan. Auzobide estuaren ondoan, gure eskuinaldean zulo luze bat dago landarez estalita.

- *Extrema la precaución en la subida al barrio de Aldaka al cruzarte con los vehículos que por ella puedan circular. Junto a la estrecha carretera vecinal, cubierta por la vegetación queda un largo socavón a nuestra derecha.*

- Etapa egin aurreko egunetan euria egin badu, Ziortzako kolejiataren eta Gorontzugaraiko gaineran artean baliteke zenbat tarte lokaztuta egotea. Lokatz tartean ibili nahi ez baduzu, BI-2224 errepideari jarrai diezaiokezu Bolibartik, baina zinez gomendatzen dizugu kolejiatara joatea, Donejakue Bidearen kostaldeko elementu garrantzitsuenetako bat da eta.

- *Si los días previos a la realización de la etapa ha llovido, entre la colegiata de Ziortza y el alto de Gorontzugarai pueden encontrarse tramos embarrados. Se pueden evitar siguiendo la BI-2224 desde Bolibar, aunque os recomendamos de todos modos la visita a la colegiata, por tratarse de uno de los hitos del Camino de Santiago en la costa.*

- Ez ahaztu Gangurenera doan desbideratzea hartu behar dela Lezamaren irteerako biribilgunean. Monte Avril mendira igotzeko oinezko bidea ez da bizikletaz egiteko modukoa, eta desbideratze horretan okerreko bidea hartuz gero, Zamudion BI-631 errepidetik ekin beharko genioke igoerari, baina bide hori ez da oso gomendagarria bi gurpil gaineko erromesentzat.

- *No olvides tomar el desvío a Ganguren en la rotonda a la salida de Lezama. El Camino a pie en la subida a Monte Avril no es ciclable y, si pasamos el citado desvío, nos veríamos obligados en Zamudio a acometer la ascensión por la BI-631, resultando ésta muy poco recomendable para peregrinos sobre dos ruedas.*

# TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Uhagon Kulturgunea (Markina-Xemein)<br>*Uhagon Kulturgunea (Markina-Xemein)* | 946 166 303<br>695 935 560 |
| Bengola – Natur Energia Interpretazio Zentroa (Gerrikaitz)<br>*Bengola – Centro de Energías Renovables (Gerrikaitz)* | 649 795 484 |
| Turismo Bulegoa<br>*Oficina de Turismo* | |
| Gernika-Lumo | 94 625 58 92 |
| Bilbao | 94 479 57 60 |
| Claret Enea aterpea<br>*Albergue Claret Enea* | 94 651 01 71<br>609 087 620 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago* | 94 679 20 99<br>687 529 606 |
| Bizkaiko Aterpetxezain Boluntarioen Elkartea<br>*Agrupación de Hospitaleros Voluntarios de Bizkaia* | 609 031 526 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | ((112)) SOS DEIAK |



